

## Ramiro Gonzalezek eta Gorka Urtaranek ziurtatu dute hau “Gasteizko eta Arabako etorkizunerako funtsezko proiektuak egiteko” legegintzaldia izango dela

Arabako diputatu nagusiak eta Gasteizko alkateak euren lehenengo bilera instituzionala izan dute M26 izan zenetik, eta aurrera egin dute plan batzuetan, hala nola auditorioa, mugikortasun laborategia, Salburuko tranbia eta Mendizorrotza hobetzea

**Gasteiz, 2019ko uztailaren 31.** Ramiro González Arabako diputatu nagusiak eta Gorka Urtaran Gasteizko alkateak euren lehenengo bilera instituzionala izan dute gaur goizean maiatzaren 26ko udal eta foru hauteskundeak izan zirenetik. Lehen bilera horren emaitza izan da berrestea proiektu komunetan duten konpromisoa, besteak beste Auditorioa, Mobility Lab Berrikuntza Zentroa, Salburuko tranbia eta Mendizorrotzako hobekuntza. Beraz, gobernu ekintza da adostasunean eta akordioan oinarrituta, besteak beste, mugikortasun jasangarria eta aktiboa, Auditorioaren proiektua bultzatzea eta Mendizorrotza handitzea izan dira diputatu nagusiak eta alkateak izandako bilerako gaiak.

Bi agintarik ziurtatu dute hau “Gasteizko eta Arabako etorkizunerako funtsezko proiektuak egiteko” legegintzaldia izango dela eta bileratik ateratzean argi utzi dute “errealitate izango direla eta lurraldea puntan-puntan jarriko dutela hiri mugikortasunaren eta jardunbide egoki jasangarrien mailan”.

Arabako Foru Aldundiaren jauregian izan da bilera eta berriro utzi dute garbi bi erakundeak bat datozela. Horrela, Gorka Urtaranek eta Ramiro Gonzalezek azpimarratu dute garrantzitsua dela estrategia partekatuaren eredu horri jarraitzea. “Aldundiaren zein udalaren jarrera hirirako eta lurralde osorako estrategikoak eta oinarritzkoak diren proiektuen aurrean komuna, partekatua eta proaktiboa da; arabarrek benetan baloratzen duten politika egiteko modu bat eta hiri eta lurraldea aurrera egiten laguntzen duena. Kasu honetan, aldundiak ere dena emango du

Gasteizen alde, funtsezkoa baita lurralde kohesioa lortzeko, eta laguntza emango du Gasteiz super hiria izan dadin”, esan du diputatu nagusiak.

Gorka Urارانek berretsi du “konpromisoa duela elkar ulertzean eta akordioan oinarritutako politika egiteko modu batekin. Nahi dugu hau izaten jarraitzea administrazioen arteko akordioaren, lankidetzaren eta elkar ulertzearen legegintzaldia, Arabako Foru Aldundiarekin partekatzen duen konpromisoa adibide, baina baita Eusko Jaurlaritza, Madril edo Europarekin ere hiriaren proiektuetan. Gure gobernu ekintzaren oinarria da, izan ere, beste erakunde batzuekin adostasuna izatea hiriaren proiektu estrategikoak garatzeko orduan. Aldundiarekin batera lan egitea da politika egiteko modu horren adierazlerik onena”, adierazi du alkateak.

Mugikortasun jasangarria da ardatz estrategiko komunitario bat. Ildo horretan, diputatu nagusiak eta alkateak jorratu dituzten erronka partekatuen artean, azpimarratu daiteke Gasteizen Mobility Lab Berrikuntza Zentroa sortzeko lanak laster esleitu direla. “Nahi dugu Gasteizen eta Araban hiri garraioaren joera berriak aztertu, frogatu eta aplikatu daitezen”. Ibilgailu elektriko, aparkaleku adimentsu, big data trafikoan aplikatuta eta autobus eta kotxe autonomoz ere ari naiz. Hori dela eta, aste honetan bertan Kontratazio Mahaiak proposatu du lan hori esleitzeko Ingartek Idensity ABEEri. Kontu hartzearen azken txostenaren eta beste izapide batzuen zain, enpresa hori izango da Arabako beharrezko egokitutako zentro baten konfigurazio onena -fisikoa, birtuala ala mistoa izan- zehazteko azterlana egingo duena”, jakinarazi du Ramiro Gonzalezek.

Horri buruz, diputatu nagusiak erantsi du “klima aldaketa egun mundu guztian aurre egin beharra dagoen errealitate bat dela”. Hala ere, mehatxu hori geldiarazteko, eta horrela jaulkipenak benetan murrizteko, behar diren neurri zehatz batzuk landu ahal eta behar dira toki mailan, hirietan eta lurraldeetan, Araban esaterako. Gure betebeharra, hortaz, hiri mugikortasun berritzailea, jasangarria eta parte hartzailea bultzatzea da. Horixe da Mugikortasunaren Laborategiaren xedea”, eutsi dio.

Gorka Urاران alkateak, berriz, gogorarazi du “nahi dugula Gasteiz Europako super hiri bat izatea, mugikortasunean erreferente. Mugikortasun aktiboa, osasungarria, modernoa eta 2030 Agendaren helburuen eta klima aldaketaren aurkako borrokaren aldekoa. Gasteizko Mobility Lab apustu estrategiko horren eragile eta ikono izango da, besteak beste”.

Salburuko tranbia dela eta, Ramiro Gonzalezek hori zabaltzeari buruzko berrikuntzak azaldu ditu. “Gobernu kontseiluak laster emango dio oniritzia Euskotren –Eusko Jaurlaritzari atxikitako ente publikoa-, Arabako Foru Aldundi eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzara arautuko duen hitzarmenari. Beraz, gai horretan ere aurrera goaz”.

Elkar hartutako koordinazio bera egiten ari da abiadura handiaren proiektuarekin eta Gasteiztik pasatzean lurperatzearekin. Orainxe bertan, bai aldundian bai udalean eta Eusko Jaurlaritzan idazten ari dira trena Gasteizen sartzeari buruzko azterlan informatiboari buruzko alegazioak Sustapen Ministeriorako, epea irailaren 2an amaitzen baita. “Ideia da ildo berean lantzea, eta egiten ari gara epea irailaren 2an amaitzen delako. Oso garrantzitsua da epeak betetzea eta erakundeak elkar hartuta ariko gara Espainiako gobernuaren aurrean, epeak bete daitezen, gai horrek lehentasuna daukalako”, azaldu dute bi agintariek. Halaber, dei egin die batera Madrilgo talde politikoei, gobernu berria era dezaten ahalik eta arinen eta urratsak ematen jarrai dezaten “hirirako eta lurralderako estrategikoa den proiektuan”.

Auditorioa izan da bileran jorratu den beste gai bat. Horri dagokionez, alkateak aurreratu du udalak eta aldundiak berriro ekin diotela proiektuari, baina jada Mariano eta Pablo Bayón arkitektoen eskutik. Gorka Urbaranek iragarri du bihar bertan izango duela bilera teknikoa arkitektoak eta bisita egin duela lurzatira alkatearekin eta diputatu nagusiarekin batera. “Aldundia eta udala batu gara batera pizteko proiektu hori”, azpimarratu du alkateak.

Alkatearen eta diputatuaren bileran aztertu den beste gai izan da Mendizorroztako futbol zelaia hobetu eta handitzea, bi erakundeetako ordezkarien apustu garbia baita. Alkateak iragarri du urrats berriak emango direla proiektu horretan, hala nola jabari emakida izapidetzeari ekitea laster zelaiaren erabilerarako. Gainera, Gorka Urbaranek aditzera eman du udala prestatzen ari dela bi alderditako lankidetzara akordioak (aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin), erakunde arteko protokoloan jasotako baterako finantzaketa gauzatzeko, proiektuaren finantzaketa berma dadin. Alkateak esan du atletismo pista berri baterako aurreproiektuan ere diharduela dagoeneko.

“Gasteiz funtsezko momentua bizitzen ari da proiektu estrategikoei dagokienez, eta horiei behar besteko bermeekin ekiteko, ezinbestekoa da erakundeen arteko lankidetzara”. Elkar ulertze eta adostasun egokia sortzeko gai diren arduradun



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

## Prensa Oharra Nota de Prensa

politikoak behar ditu hiriak, elkarrizketa eta akordioa lortzeko gauza den gobernuak. Aurreko legegintzaldian hasiera eman genion ibilbidean jarraituko dugu lanean, bai udal gobernuak bai foru gobernuak. Beste erakunde batzuekin lankidetzan eta elkarrizketa izateko bideari jarraituko diogu", esan du bukatzeko Gorka Urbaranek.